



KUBAKO ARTISTA GAZTEEN LANAK ZINTZILIK

Alegiako Jubilatuen tabernan Patxi Tenak Kubatik ekarritako lanak daude ikusgai hilabete osoan zehar >5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-03-19**

VIURTEA 1.390.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



ARRATE OTERMIN

DINA MENDIKUTE TXIRRINDULARIA

«Kanadarako bidaiari bizikleta nirekin batera etorriko da hegazkinean»

HERNIALDE Euskal Herriko Txirrindulari Txapelketan 2. egin zuen Hernialdekoak, postu berbera eskuratu zuen Euskal Herriko torneoan 2



Amuarrainak tamainaren arabera bereizten ditu makinak. N. GARZIA

Arrain-haztegiaren lana ezagutzuz

LEITZA 1966. urtean Dionisio Garces tolosarrak eta Luis Lasarte sekretarioak sortu zuten 6-7

Estropadantza, Amazabal institutuko en jaialdi berezia

LEITZA Dantza eta musika uztartu zituzten atzo ikasleek herriko zineman eginiko jaialdian 4



HITZAri buruzko informazioa

**Aste Santuko
oporraldia dela-eta**

martxoaren 20etik 25era ez da HITZArik argitaratuko.
martxoaren 26ean izango gara berriro ere zuekin.

hitza, orain gertuago

E Elkarrizketa

DINA MENDIKUTE › Txirrindularia



A. OTERMIN

«Bizikleta nirekin batera etorriko da hegazkinean Kanadara»

Hernialde › Dina Mendikutek bigarren egin zuen Euskal Herriko txapelketan, eta postu bera erdietsi zuen Euskal Herriko torneoan.

ARRATE OTERMIN

Dina Mendikute (Hernialde, 1984) orain hiru urte hasi zen txirrindularitzan, eta dagoeneko bigarren postuak bereak egin ditu joan den urtean, bai Euskal Herriko Txapelketan, baita Euskal Herriko torneoan ere. Horren harira, kopa eta diru saria jaso zituen Euskal Konfederazioak Gabonetan ospaturiko galan.

Noiztik zabilta txirrindulari-tzan?

Txapelketa mailan, joan den urtea izan da hirugarrena. Aurretik, beldanik ibili izan naiz, uda garaian edota anaiarekin bizikletan.

Aurretik aritua zara bestelako ki-rolen batean?

Bai, egia esan, denetik egin dut. Umetan, eskola garaian, sortzen zuten guztian ibilia naiz, bai pilotan, atletismoan, futboleko irristaketan... Mendira ere askotan joaten nintzen. Gero, lauzpabost urtez edo, iraupen eskian lehiatu nintzen, baina nahiz eta serio entrenatzen nuen, nahiko joko moduan hartzen nuen. Unibertsitatean hasi nintzenean, berriz, lehenengo bi urteak trantsizio egoera modukoak izan ziren. Oso kirol gutxi egin nuen. Segidan, triatloian

lardaskan hasi nintzen. Eta entrenamenduak prestatzeko, txirrindulariak entrenatzen dituzten Ainhoa Artolazabal eta Maitereganana jo nuen. Bizikleta entrenamenduak txirrindulariekin batera egiten nituen, eta pixkana txirrindularien arteko giroa ezagutzen hasi nintzen. Ezagutu nuen guztiak erakarri ninduen. Beste aldetik, anaia eta hauen lagunak nituen; eta lehenengo urtean denetik pixka bat egin banuen ere, azkenean, txirrindularizari heldu nion.

Zer ematen dizu txirrindulari-tzak?

Batez ere lagunak eta egundoko giro ona. Bestalde, neure buruari ezarritako helburuak lortzen saiatzen naiz. Oso aberasgarria da, horrenbeste prestatuntzaren ondoren, hasieran ezarritako helburuetara iristen zarela ikustea.

Orain Kanadara zoaz, ezta?

Bai, enpresen administrazioan eta zuzendaritzan lizentziatura ikasketak egiten ari naiz. Sei urteko iraupena dute ikasketek, eta azken sei hilabeteak praktikak egiteko dira. Praktika hauek Kanadako enpresa batean egingo ditut.

Eta txirrindularitza?

Bizikleta nirekin eramateko as-

moa dut. Lehentasuna praktikak izango dute. Ez dakit, oraindik, nola moldatzerik izango dudan, baina denbora ongi antolatzeko modurik izanez gero, bertan lehiatzeo asmoa dut.

Prestaketarik egin duzu?

Hemen aurreboraldi osoa egin naiz, eta baita ongi entrenatu ere. Berez, lehiatzen hasteko prest nago, baina bertan zer dagoen ikusi beharko dut lehenik.

Ba al duzu ezagunik bertan?

Ez, ez dut ezagunik; baina bertara praktikak egitera noan enpresa, Tolosako enpresa batena da.

Nola moldatzen zara ikasketak, txirrindularitza, lagunak, ...?

Bizikletari denbora asko eskaini behar diot. Baina unibertsitatean hasi-eta, lehenengo bi urteak trantsizio modukoak izan ziren; denbora gehiago eskaini nien ikaskei. Poliki-poliki, unibertsitateari

«Oinarria landu behar da, eta oinarrian inbertitu neskak txirrindularitzara ekartzeko»

tamaina hartu nion. Orduan heldu nion berri ere bizikletari. Asotan, gauza asko utzi behar ditut alde batera, baina era berean, egiten dudanak asko betetzen nau. Ongi antolatzen saiatzen naiz. Klaseetatik bueltan entrenamendu saioa egin, eta ondoren berriro ikastera. Den-

bora eskasia ezertarako izatekotan, atsedean hartzeko dut. Entrenatu bai, ikasi ere bai, baina profesionalen aldean, haiek adina entrenatzen badut ere, denbora falta dut atsedean hartzeko. Eta atsedean hartzea oso garrantzitsua da. Egiten dudan guztia egiteak, azkenean, konpentsatu egiten nau, baina egia esan, oso motibazio handia behar da hori guztia egiteko.

Eta lagunak...?

Denbora librean dudanean, lagunekin egoteko izaten da. Badut agendan haientzako txokoa. Garai batzuetan gutxiago egoten naiz, azterketa garaian, adibidez. Baina lagunak oso garrantzitsuak dira, asko zaindu beharrekoak. Parrandak, berriz, tenporada bukaerarako. Noizbehinka egiten dut eskapadaren bat, baina gustura nabil bizikletan, eta helburuak lortzen ditudala ikusita, ez dut parranda gehiegiren beharrik.

Nola antolatzen duzu urtea?

Abuztuan tenporada bukatu-eta, tenporadan zehar egin ezin diren gauzak egitea da hoberena: korrikan egin, gimnasia asteen hirutan joan, mendian ibili, mendiko bizikleta, ... gorpuz erresistentzia lantzeko. Gabonetan, bizikletan zentratzen hasten naiz; otsailan, abuztura arte, karrerak korritzen hasten gara-eta.

Azken urte hauetako garaipenak?

Bizikletagainean lehiatzeko kontu

hau orain hiru urte hasi zen, eta denbora horretan, ezin da garaipe askorik lortu. Egia esan, iazko garaipenak, ezustekoak izan ziren. Bigarren posturik ez nuen espero.

Zein talderekin zabilta?

Tolosa CF-n. Agustín Zabala dugu zuzendari. Taldean Gipuzkoako neskak gara gehieneak, baina badira andaluziarrak ere. Denera, kategoria guztiatariko, 17 neska inguru gara.

Zein alde nabarmen ikusten duzu mutil eta nesken artean?

Batez ere, txirrindulari kopurua. Oso neska gutxi gaude, eta lehiatu nahi dugunean, Espainia osoan ibili behar gara. Eskola garaian, ez dut uste, fisiko aldetik, nesken eta

«Eskualdean bada gure alde apustu egin eta gurekin lan izugarria egiten duenik»

mutilen arteko alde oso nabarmena denik. Kadete mailan, ia, desberdintasunak izaten hasten dira. Nik ezin dut pentsatu ere egin nire adineko mutil batekin konpetitzea. Dauden alde fisikoez gain, nesken eta mutilen korritzeko modua ere asko aldatzen da: mutilek eroago korritzen dute. Baina alderik handiana, fisikoan dago.

Desberdintasun hauek al dira, bi sexuen artean, antolaketa ikusten diren aldean funtsa?

Alde fisikoari begira, nesken karrerak moldatu egin daitezke. Hortan, ez luke arazorik behar. Baina kontua bestelakoa da. Neskak txirrindularitzan aritzera animatzen ez diren artean, ez da bixigarririk izango karreretan. Nire ustez, arazoa kopuruan dago. Oso neska gutxi dago txirrindularitzan, eta hori aldatzen ez den artean, ez da basterik aldatuko. Neskak animatzen bagara, maila igo egingo da; eta maila igoz bada, ikuskizun hobeak eskaini ahal da. Eta ikuskizun hobearen aurrean, neskagehiago animatuko litzateke karrerak prestatzera. Gainera, prestateta horretan, errepideetan neska gehiago ikustean, neska gehiago erakarriko luke. Gurpil zoro baten modukoak dirudi guztiak.

Zergatik ez ote dira ba, neskak animatzen?

Neskak, berez animatzen gara gutxiago, eta gainera, ez dugu mutilek beste medio. Honek, tentagarri gutxiago izatea dakar.

Zein ote da konponbidea?

Oinarriarekin lanean hasi eta oinarrian inbertitzea. Baina oso zail ikusten dut, horren kargu egingo den pertsona topatzea.

Hemen, eskualdean, bada apustu egiten duenik?

Bai, Agustín Pagola dugu. Agustinek beti izan ditu neskak kontuan, eta izugarria da gurekin egiten duen lana.

Z **Zurea da hitza** info

Ikasleen emanaldiak ingelesez

Villabona » Ingeleseko emanaldiak eskaini dituzte Jesusen Bihotza ikastolako ikasleek, Villabonako Gurea aretoan.

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleek, Gurea zinema aretoan Ingelera emanaldiak eskaini zituzten. Parte-hartzaileak haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoak eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak izan dira. Emanaldi hauek Ikastolako Eleanitz

Proiektuaren barnean kokatzen dira. Ikasleek era ludiko batetan ikasten dute eta edozein hizkuntzatan bezala, Ingelese ere, azken helburua komunikatzeko gaitasuna garatzea denez, une oso aproposak suertatzen dira lortutako kompetentziak ikusleei adierazteko.

Denetarik izan zen, antzerkia, pailazoak, magoak eta txikiaren eskutik abestiak eta dantzak. Gurasoak oso pozik agertu ziren ikuskizunarekin, nahiz eta askoren ahotik honela entzun «Ez dut tutik ere ulertu, baina oso gustora egon naiz».

Ibarrako herritarrei zuzendutako bandoa Bai Euskal Herriari-k

Ibarra » Aberri Egunean herritar guztiak animatu nahi ditugu euren balkoietan ikurrina jartzera.

BAI EUSKAL HERRIARI

Ibarrako Bai Euskal Herriari taldeak deialdia luzatzen die ibarrar guztiei, martxoaren 23an izango den Euskal Herriko aberri egunean etxeko balkoietan ikurrina jartzeko gure euskal nortasuna aldarrikatzeko.

Igerilekuko aldageletan: «Times they´re changing»

Tolosa » «15-16 urteko mutiko batzuk play station edo traste horiek jokuei buruzko aldizkari batekin eztabaidatzen ari dira»

E. MANDIOLA

Gaurko irudia Usabalgo aldageletan: entrenamendua bukatu berri, aldatzen ari diren 15-16 urteko bospasei mutiko aldizkari baten bueltan, ikusmin handiz.

Nere artean: «To: erori zaie neska lizunen aldizkariren bat

esku artera». Ay, hala balitz! Gure garaian hala litzateke, salbuespen batekin: izkutan ibiliko ginen. Ez horratio: aldizkaria, play station edo traste hoi jokuei buruzkoa zen: eztabaida bizian denak, joko edo jolas batzuen eta besteen abantaileri buruz. Jakina: erdara garbian, euskaraz ondo eta garesti eskolatutako mutikoteak baziruditen ere.

Zergatik ukatu: pena pixka bat eman didate. Ez hizkuntzagatik, besteagatik baizik. Jakina: emakumeen anatomiar buruz jakin beharreko guztiak ezagutuko dituzte

aspaldian, internet bidez eta... se-guru asko bai. Eta: nahi duten hizkuntzan askatasunez egitea ondo dago...

Gurasoen diruak eta irakasleen pazientziak alferrik xahututa ere. Gure mutil-kozkor garaik ez ziren horrela. Akaso hobeak edo akaso okerragoak: diferenteak, garbi dago. Baina ez nieke garaia aldatuko. Gizajoak! Badute nahi-koa lan, bizitza zer den arrastoa hartzen hasterako ere. Beraiek asko ez uste arren. Seguru nano, bizkorrago dabiltzalanesken aldageletan...

Ubare auzoak «segurtasun ona» duela dio lan ikuskaritzak

Zizurkil » «Baldintza egokiak» direla eta bizilagunak zein langileak ez dituela «arriskuan jartzen» uste du.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Probintzialak txosten bat idatzi du Ugare auzoko biziberritze lanak zein baldintzetan aurkitzen diren aztertu ostean, etaguztiaren ondoren, «segurtasun eta osasun baldintza onetan» burutzen ari direla lanak. Atera duten ondorioan baliagarria da «bai obrako langileentzat bai Zizurkilgo bizilagunentzat».

Txosten honek Zizurkilgo Uda-

leko Raul Vazquez Alderdi Popularraren zinegotziak ezarritako salaketari erantzuten dio, non aipatu auzoko «biziberritze lanak arrisku bat» zirela baieztatzen zuen, «segurtasunik ezagatik». Salaketaren bitartez, Vazquezek lanak gelditzea eskatu zuen.

Ikuskarieren txostena

Udaletik jakitera eman dutenez, salaketaren aurrean, «ikuskarri batek lanen egoera ikuskatu eta bertako segurtasun baldintzak aztertu zituen, arriskurik bai ote zegoen egiaztatzeko», Ubare auzoko hirigintzako jarduketak gauzatzeko erantzukizuna duen UTE Rio Asteasu enpresako arduradunarekin batera. Horren ostean, txostena idatzi du, «segurtasunarekin eta

osasunarekin zerikusia duen araudi osoa betetzen» dela baieztatzen du.

Udalaren balorazioa

Udalak, bere aldetik, «asko baloratzen du» ikuskarriak ateratako ondorioa, «eztabaida honen hasierahasieratik Udalak defendituriko tesiak modu ofizialean berresten dituelako, eta auzo honetako biziberritze lanek jarduketak mota hauei aplikatzen zaizkien segurtasun arau guztiak errespetatu dituztelako». Honen harira gaineratu nahi izan du «astero egin direla bilkurak gai honen inguruan, eta etengabeko kontrola egon dela Udalaren aldetik, herriari burutzen den edozein hirigintza lanetan jokatzeko den bezalaxe».

TXOTX

Urbarte

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 **Ataun**

Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.lajajerregia.com)
Tel.: 943 494 309 (info@lajajerregia.com) **Hondarribi**

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 **Lesaka**

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 **Irun**

Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriaz auzoa
Tel.: 943 494 353 **Oiarzun**

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523-905 **Errenteria**

Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 **Azkaine**

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 **Jatsu**

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 **Errenteria**

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 **Itziar**

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) **Usurbil**

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 **Ikaztegieta**

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) **Tolosa**

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 **Asteasu**

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) **Aduna**

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 **Leaburu**

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 **Tolosa**

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 **Leitza**

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 **Urnieta**

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 **Hernani**

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 **Hernani**

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org
Tel.: 943 556 637 **Astigarraga**

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**

Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com **Astigarraga**

Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergobia auzotik) gurutzeta@gurutzeta.com
Tel.: 943 552 242 www.gurutzeta.com **Astigarraga**



Neskek eta mutilek nahasita dantzatu zuten, hasierako performance-aren ondoren. N. GARZIA



Oholtza azpian musika jartzen aritu ziren, ezinbestekoa baitzen. N. GARZIA



Musika estilo ezberdinak entzun ahal izan ziren, hauek, esaterako, Shakiraren abesti bat aukeratu zuten. N. GARZIA



Hau izandu zen bakarka abestu zuen ikasle bakarra. N. GARZIA

Gorputza eta musika bat eginik

Leitza » Musika eta dantza izan ziren atzo protagonista nagusiak zineman goizean egin zuten Estropadantza izeneko jaialdian.

NAIARA GARZIA

Atzo zineman dantza jaialdia egin zuten Amazabal Institutuko ikasleek. Hirugarren urtea da jaialdi hau egiten dutela eta aurtengoan Estropadantza deitu diote, «prinzesa eta printzesa txikien jaialdia».

09:30 aldera hasi zen jaialdia eta

lehenengo hezkuntzako zenbait ikaslek eta bigarren hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleek ere parte hartu zuten. Jaialdia 11:00ak aldera pasatu zen eta musika elektronikoa, popa, trikitixa, gitarra... uztartu zituzten.

Estropadak aitzakia bezala har-

tuta, talde bakoitza traineru bat bailitza aritu zen. Honela, *Leitza-ko deabrutxoak* Telmo Deum trainerukoak ziren, *Estamos verdes* taldekoak, Ama Guadalupekoak, *Eziñen* taldekoak, San Nikolasekoak, *X Pribate* taldekoak Errekakoak, eta *Astizen Biotxe!* taldekoak, Libia trainerukoak.

Gorputz-espresioa lantzen

Soinetakako ikasgaietik sortu da jaialdi hau eta Jose Maria Pereda *Peri* soinetakako irakasleak azaldu

duenez, «azkeneko mementoan ikasleek zenbait aldaketa egin dituzte, bi koreografia dantzatu beharra zituzten eta askok ez dute hori egin». Jaialdi honek gorputz-espresioarekin zerikusia du. «Nik hau beste ikastetxe batzuetan landu dut. Ebaluaketa bakoitzean 2 ordutako 11 saio izaten ditugu eta nik 4 ordu gorputz-espresioari eskaintzen dizkiot. Hasieran nik gidatzen dut eta gero haiek fase autonomo batean sartzen dira».

Irakasleak ebaluaketa bakoitze-

an ipuin bat pasatzen die eta oraingoan lotsa eta saiakera lantzea helburu zuen bat landu dute. Honen ondoren, atzo, jai giroan eta lotsari aurre eginez dantzatu zuten.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.

Kubako artista gazteen margolanak ikusgai

Alegia » Jubilatuen tabernan Patxi Tenak Kubatik ekarritako lanak daude ikusgai hilabete osoan zehar.



Kolore biziekin egindakoak, Kubako sustraiari lotutakoak daude. N.U.

ERREDAKZIOA

Hilabete osoan zehar Alegiko jubilatuen tabernan Patxi Tenak Kubatik ekarritako arte eskolako ikasleen lanak daude ikusgai. «Irudimen handiko lanak dira», Tena tolosarrak gogoratu bezala.

20 bat urte daramatza Kubara joaten Tena, eta arte eskola bateko ikasleen lanak ekartzen ditu, ikusteko eta saltzeko. Lortutako diruarekin material berria eros dezakete gazte hauek eta hala, lana egiten jarraitu. Asmoa da, artista horietakoren bat noizbait ekartzea.

Irudimena, sustraiak, artea

Irudimen handia dute gazte hauek eta prestakuntza oso ona. Haien tradizioarekin lotutako lanak ikus daitezke, eta baita paisaia europearragoak ere. Merezki dute.



Karetak, eta folklorea lantzen duten lan artistikoak daude ikusgai. N.U.

Bai Euskal Herriari Lizartzan

ERREDAKZIOA

Bai Euskal Herriari herri ekimenaren prentsurrekoa «lizartzarren ondoan» egin nahi izan dute ordezkariak. Bertan, eta Lizartza «espainiar abanzadillaren ikur bihurtu nahi izan dutenen aurrean», Lizartzaren jarrera «euskal izatearen eredu» aurkeztu zuten. Euskal Herriari «sufritzen duen gatazka politikoaren adibide gisa» agertu nahi izan zuten atzo herria.

Udaletxearen aurrean ikurrinaren aferaz mintzatu ziren, Aberri Egunan parte hartzeko deialdia luzatu zuten, eta ikurrina etxe guztietan jartzeko deialdia egin zuten.

Bai Euskal Herriari herri ekimeneko Erruki Ezkurra, Mikel Luloaga eta Naroa Geresa izan ziren hainbat herritarren babesarekin.

Bilboko udaletxean Espainiako bandera jartzea («abertzaleztat du bere burua alderdiak»): «Ez dugu ulertzen. Lizartzan gertatzen dena eta Bilbon gertatuko denak ardugabeberia latzak iruditzen zaizkigu».

Bai Euskal Herriari ekimena jada 30 eragile sozial baino gehiagorekin jarri da harremanetan, eta emaitzak apirilaren leian emango dituzte ezagutzera.

Aberri Egunari begira

Martxoaren 23an Aberri Eguna izanik, «Euskal Herriko leihoguztiak Ikurrinez eta euskal ikurrez» betetzera animatu zituzten euskal herritarrek. Nazio Eztatidagunearen baitan bilduriko hainbat herritarrek, martxa herritarra an-



Luloaga, atzoko prentsurrekoan. N.U.

tolatu dute Irundik Hendaiara, eta Bai Euskal Herriari herri ekimena osatzen dutenek dei egin zieten euskal jendarteari *Nazioa Gara, Zazpiak bat, burujabtzaren alde* martxan parte har dezan.

Udaleko batzordeen bilera irekiak datorren astean izango dira

Amezketak » Kultura, hirigintza-obrak eta gizarte ongizate eta ingurumena batzordeek informazioa eta erabakiak hartuko dituzte.

guntzak eta diru eskaerak erabakitzeko; 12-16 urteko gazteen dinamizazioa; turismoa bultzatzeko proiektua; ikastaroen informazioa; UEMAn sartzea aztertu.

Ur kudeaketa egokiena aztergai azken bileran

ERREDAKZIOA

Datorren astean Amezketa Udala osatzen duten batzordeek bilerak egingo dituzte. Lehenengo Hirigintza-obretakoena izango da, asteartean, 20:30ean balioanitzeko gelan. Bertan, jorratuko diren gaiak Ola aldeko industria, Jauregi Eremua, Larraitx Bideko etxebizitzak eta Agenda 21eko dagozkion ekintzak batzordeari pasatzea izango dituzte aztergai. Erabakitzeko, berriz, besteak beste, Santuarango aterpetxearen obra amaiera.

Gizarte ongizate eta ingurumena batzordea hilaren 27an, osteguna, biltzeko da, betiko orduan eta betiko lekuan.

Jasotako kexa batzuk faxadetakoko pintaketekin daude lotuta eta hori izango da gaietako bat. Bestea, berriz, ur kudeaketa egokiena Amezketa; balioanitzeko gelaren erabilera erabaki; lan poltsan daudenen hautaketarako irizpidea; helduen programako lanak banatu; Enirio-Aralar Mankomunitateko bilakerako informazioa eta Julian Sagastume alkate ohiaren eskaera.

UEMAn sartzearen azterketa

Kultura batzordea gaur zortzi 20:30ean bilduko dira. Gaiak, kasu honetan honakoak: elkarteei la-

Bilerak irekiak dira, eta beraz, herritarren parte-hartzea eskertuko da, ideia berriak emanez, eta aldi berean informazioa hartuz.

Aste Santuko mezetan izango diren ordutegiak

ERREDAKZIOA

Bihar Aste Santuan gaudela kontuan izanik, Jaunaren Afaria ospatuko dute hainbat elizatan: Arramele 17:30ean, Santa Klaran eta Amarozen 18:00etan; Santa Marian, San Frantziskon eta Corpus Christin 19:00etan, eta Ibarran 19:30ean.

Etzi, berriz, Ostiral Santuko gurutze bideak hauek izango dira: Izaskunera 07:30ean, San Frantziskon eta Ibarran 10:00etan; 11:00etan Santa Marian, eta Corpus Christin 12:00etan. Jaunaren Nekaldia gogoratzen dute: Arra-

melen eta San Frantziskon 17:00etan; Santa Marian, Santa Klaran, Corpus Christin eta Amarozen 18:00etan; Ibarran 19:30ean.

Igandeko ordutegiak

Jaunaren piztuerako pazko gau santuko orduak, larunbatean: Ibarran 19:30ean, 20:00etan Amarozen eta Arramelen; 21:00etan, berriz, San Frantziskon, Corpus Christin eta Santa Klaran; eta 21:30ean Santa Marian.

Igandean, Jaunaren piztuerako pazkoa izanik igandeko ordutegiak mantenduko dituzte.

Hilberriak

JUANJO

Lagunek ez zaitugu ahaztuko

TOLOSAN
2008ko
martxoaren 19an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARRAINEZ GAINEZKA



Juanito Berasategi eta Joseba Aierdi, amuarrainak tamainuaren arabera bereizten dituen makinarekin lanean. NAIARA GARZIA

Leitza » Arrain-haztegiak 42 urte daramatza martxan, 1966an Dionisio Garces tolosarrak eta Luis Lasarte sekretarioak sortu zutenetik.

NAIARA GARZIA

Leitzako arrain-haztegia 1966. urtean sortu zen eta gaur egun 3 langile aritzen dira bertan: Juanito Berasategi, Joseba Aierdi leitzarra

eta Jon Garikano tolosarra. Hirurak makina bat urte daramatzate bertan: Juanitok 34, Josebak 12 eta Jonek 20. Sortu zenetik beti pribatua izan da eta azkeneko nagusia,

Alfonso Teruel Mina, abenduan hil zen. Ordundik bere 2 semeak egin dira enpresaren kargu.

«Luis Lasarte Leitzako lehengo sekretarioa eta Dionisio Garces nire aitona sozio bezala izan ziren lehenengo nagusiak», dio Garikanok. «Gero izan ziren elkartean nire ama Izaskun Garces eta Luis Lasarte. Eta gero nire ama bakarrik. Azkenekoa Alfonso Teruel

izan da, abenduan hil dena. Hori 2003. urtean sartu zen».

Juanito Berasategi da hiruetatik urte gehien daramatzana eta piszifaktoriaren hastapenak azaldu ditu. «Hasieran kontsumorako zen. Arrandegietara ateratzen zen, bertako jatetxetara, gehienbat Iruñera. Birpopulaketarena azkeneko 6 urte hauetan hasi da. Nagusiaren aldatetarekin batera izan da

hori. Sartu zen nagusi berriak birpopulatzeko lanak hartuta zeuzkan eta hau erosi zuenean hemendik ere lan hori egiten hasi ginen».

Gaur egun, Joseba Aierdik dioenez, amuarrainak gehienbat Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxara ateratzen dituzte, erreketarako eta lakuetarako. «Arraza bera da erreketarako eta lakuetarako erabiltzen dena. Ortzadar-amuarrain izenekoa birpopulatzeko da gehienbat, leku batzuetarako bertako amorraia edo autoktonoa nahi izaten dute, baina gehienbat ortzadar izenekoa birpopulatzeko da».

Prozesua

Arrautzetatik atera eta amuarrainak behar adina hazi arte urtebete edo 2 urte behar izaten dituzte, amuarrain arrazaren arabera izaten da hori. Prozesua, beraz, jende askok usteko lukeena baino luzeaz-

**2 hilabetetik behin
400.000 edo 500.000
arrautza inguru sartzen
dira piszifaktorian**

**Ura ahal den garbiena
eduki behar da, hemen
erdia errekaokoa eta erdia
iturriokoa edukitzen dute**

goa da. «Lehenago arrautzak ere hemen ateratzen genituen», dio Berasategik, «prozesu guztia hemen egiten zen, baina orain azkeneko urteetan nagusiak arrautzak egiteko arrain-haztegi bat duenez, Huescan, handik ekartzen dira jaiotze bakoaren lehenago». Orain, beraz, arrautzak kanpotik ekartzen dituzte, eta amuarrainak herriko piszifaktorian jaiotze bakoaren bertan hortik aurrerakoak egiten dituzte. «Ekarri, desinfekzioa egin eta bandeja edo erretilu batzuetan jartzen ditugu, jaiotzeko». Ura ahal den garbiena eduki behar da, hemen erdia errekaokoa eta erdia iturriokoa edukitzen dute.

Amuarrainak jaiotzen direnean, 8 egun egoten dira besikularekin eta tarte horretan ez dute janaririk behar izaten. «Besikula poliki-poliki bukatzen zaienean pixkanaka goraka ateratzen dira, igeri egiten, eta orduan pentsua ematen hasten gara, hirina. Hemen barruan jaiotze bakoaren lehenengo egunak, babetegoa», dio Berasategik. Hilabete igarotzen denean kanpoko asketara ateratzen dituzte. «Jaten ongi ikasi arte egoten dira bertan», dio Aierdik.

Jaiotako amuarrainak erretiluko zuloetatik beheara erortzen dira. «Arrautzaren azala goian gelditzen da baita hildako amuarrainaren arrautzak ere. Eta orduan jaiotzeko denak behean gelditzen dira. Dagoeneko arrain forma izaten

dute, baina besikula ere hor izaten dute», dio Juanito Berasategik.

2 hilabetetik behin 400.000 edo 500.000 arrautza inguru sartzen dira arrain-haztegiaren eta jaiotzekoan %10a hiltzen da. Arrautzak egoten dien lekuari langileek laborategia deitzen diote.

Hurrengo urratsa, kanpora

Kanpoko asketara amuarrainak atera baino lehen, kontatu egiten dituztela dio Berasategik. «Aurrenakilo batean zenbat sartzen diren kontatzen dugu eta gero denak pisatzen ditugu, horrela badakigu gutxi gorabehera zenbat buru ateratzen diren». Amuarrain guztiak tamainu berekoak ateratzen ez direnez, txikiak beste prozedura bat jarraitzen dute. «Txikiak beste hilabete bat edukitzen ditugu eta txerto bat ematen diegu gero etortzen den gaitz bat saihesteko, yersinia izenekoa. Hori bazter guztietan izaten da». Txertoa eman ondoren 15 egun atseden

hartzen egoten dira. «Gero beste aska handiago batetara eramaten dituzkegu edo kamioiean sartu eta beste pisizfaktori batetara eramaten», dio Berasategik. 7 zentimetrokoak egiten direnean, % 75 beste pisizfaktori batetara eramaten dute. «% 25a hemen uzten dugu, handiak egin daitezten».

Aska ezberdinak

Pisizfaktoria zona desberdinetan banatuta dago eta beste aska batzuetara 20 gramotik gorako amuarrainak eramaten dituzte. «Lehenengo asketan 8 gramokoak egin arte egoten dira, eta haueetatik %75 Santandergo arrain-haztegiara bidaltzen dugu eta % 25a beste asketara pasatzen da. Hazi ahalean makineta jarri eta bereizi, aska ezberdinetan jarri eta zabaldu egiten ditugu».

Joseba Aierdik amuarrain guztiak ez direla berdin ahazten azpimarratu du. «Jan ahalean denak ez dira berdin hazitzen, eta ezberdin-

tasunak ateratzen dira. Batzuk handiagoak, beste batzuk txikiagoak gelditzen dira eta nahitaez sailkatu behar izaten ditugu». Sailkapen hori makina berezi batekin egiten dute. «Gehienetan txikiak goiko asketan jartzen ditugu», dio Juanito Berasategik, «ura berria etortzen da eta gehiago mimatzen. Handiak, aldiz, beherago jartzen ditugu, beste aska batzuetan, ur zaharragoarekin hobeto mantentzen baitira».

Leizatik beste probintzietara

250 gramokoak egiten direnean Errioxara, Bizkaia eta Gipuzkoara eramaten dituzte, bertako errekek eta lakuak birpopulatzeko. Bai bata bai bestea ados daude birpopulatzeko amuarrainek behar izaten duen tamainuan. «Hori izan ohi da birpopulatzeko neurria, edo hortik gora, hori baino txikiagoa ez baitute nahi izaten».

Amuarrainak barreiatzeko kamioia uraz bete eta eta oxigeno jarri

beharizatzen zaie, «bestelabukatzu joaten zaie bidean, eta hil egiten dira».

Amuarraina kapritxoa zenean

Joseba Aierdik azaldu duenez, «orain oso pisizfaktoria gutxi daude, gehienak itxita daude. Eratsuen ere bazen bat eta duela 4 edo 5 urte itxi zuten». Berasategiren datuen arabera, Nafarroako Gobernuak 3 pisizfaktoria dauzka eta pribatuak direnak beste 3 dira. «Ni hasi nintzenez Espainia osoan 6 pisizfaktoria zeuden», dio Berasategik, «orduan amuarrain oso gutxi jaten zen, ezkontzetan eta horrelako egunetan, luxuzko jakia zen. Gero pisizfaktoria gehiago egin ziren, produkzioa handitu egin zen eta askoz merkeago jarri zuten. Orain arrain korrientea da».

Uraren garrantzia

Amuarraina ongi hazitzeko orduan, faktoreerik garrantzitsuenetariko uraren kalitatea dela

azaldu du Juanito Berasategik. «Amuarraina ona edo txarra atera uraren kalitatearekin zerkusia du, gainekoan janariak denak antzekoak dira». Gauza bera dio Aierdik. «Urak eragin handia dauka, faktoreerik garrantzitsua da. Adibidez, Esako arrain-haztegi ura ezberdina da eta amuarraina txuriagoa ateratzen da. Leitzako amuarraina beltzagoa da. Leitzakoa nik dakit adituta, kalitate honekoa dela, orduan horrek hemengo ura ona dela esan nahi du».

Arrain-haztegi langileek lana «nahiko gaiean egon beharrekoa» dela diote, «nahiz neguan uholdeak direnean, edo pasoa ixten delako, nahiz udan. Askok herrian esaten digute *zuen lanean ederki ibiliko zarete bero handiak egiten dituen uraren ondoan*, baina hemen bero handia izaten da. Kanpoan denbora asko igarotzen dugu, eta bai neguan, ba udan, hotza eta beroa, bietatik hartzen dugu».



Kanpoko amuarrainei egunero jaten eman behar zaie, N.G.



Laborategian hasten da dena, arrautzak hor izaten dituzte. N. GARZIA



Hauk amuarrain arrautzak dira, gertutik begiak ikusten zaizkie. N. GARZIA



Aska bakoitzean milaka amuarrain daude. N. GARZIA

Arrantza egiteko debekua, irtenbidea?

Arrantza » Nafarroako Gobernuak aurten iparraldean arrantza egitea debekatu du, amuarraina ugartzea nahi baitute.

N. GARZIA

Aurten Nafarroako Gobernuak Nafarroa iparraldean arrantza egitea debekatu du eta Juanito Berasategik eta Joseba Aierdik (azken hau arrantzale elkarteakoa ere bada) ere honen inguruan gozoeta egin dute «Amuarrain arrunta gero eta gutxiago ari gara birpopulatzeko, galerezan ari baitira. Bertako almerriari eutsi behar zaio esanez dabilta, ez dute beste

amuarrainekin nahasterik nahi. Baina errekek amuarraina botatzen bada ere, amuarrain antzua izaten da, ugartzen ez dena. Aspalditik dauden amuarrainek aurrera egitea nahi dute. Baina pisizfaktoretan azkarrago hazitzen dena ortzadar arraza da. Errekek, berriz, mantxoago hazitzen da, eta izuagoa da».

Gauza bera dio Joseba Aierdik. «Pisizfaktorian hazitzekoan ortzadar arraza urte batean hazitzen da, eta bestea 2 urtetan. Nafarroako Gobernuak hartutako erabaki honekin Nafarroako iparraldean debekatu egin dute arrantza egitea amuarrain ugartzea nahi baitute». Halere, hori «zail xamarra» izan dela dio Berasategik. «Oso

amuarrain gutxi gelditzen direla eta gero lertxunen edo garzen eta legez kanpo arrantza egiten dabilen jendearen erruz zaila izan da asko ugartzea». Lehenago hementi horrelako itsas-hegazitirik ez zela izaten dio Aierdik. «Lertxun edo garza izeneko itsas-hegazti horiek zabaldu egin dira, lehenago hementi ez zen izaten, duela urte gutxi zabaldu ziren honera, eta horrek ere kalte handia egin duela uste dut. Hemendik ere gauean amuarrain asko hartzen dizkigute, pilean egoten baitira. Niri zuzenbidez iruditzen zait erreken egoerak hobera egin beharko lukeela, duela urte asko horrelako arazorik ez zen izaten, Leitzan behintzat. Gertatzen dena da azkeneko urte-

etan arrantzale batzuk legez kanpo ibiltzen direla alde batetik, eta hegazti horiek zabaldu egin direla, bestetik». Horrexegatik, arrantza debekatzea ez dela irtenbidea dio Berasategik. «Arrantza debekatzea baino hobea litzateke hegazti horiek eta isileko arrantzaleak ibiliko ez balirateke. Hauengatik amuarrainak asko jaitsi direla iruditzen zaigu».

Berasategik beste irtenbide bat proposatzen du. «Nafarroako Gobernuak oso amuarrain polita badauka, nahi izanez gero birpopulatzeko, edo beste aukera bat erreka amuarrain bat hartu eta beraien umeak ateratzea da. Hori oso erraza da, guk askotan egin dugu». Jon Garikanoren ustez, azkeneko 20

urteetan ez da apenas birpopulatu, eta hori da gaur egungo erreken egoeraren arrazo nagusia.

Debekuaren zergatia

Urte hasieran debekatu zuen arrantza Nafarroako Gobernuak foru agindu baten bidez Nafarroako iparraldeko ibaietan. Ingurumen Departamentutik kontrakoa esan arte, eta 3 espezie izan ezik (izokina, kolakoa eta seinale karriarra) arrantza egitea debekatu ta egonen da. Amuarrainaren egoera larriak bultzatuta hartu zutela erabakia azaldu zuten. Honen ustez, «amuarrain aleen gutxitzea ibaien egoera txarrari egotzi behar zaio eta ez da arrantzaleen errua».



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** *Superdog* haurrentzako filma izango da ikusgai Leidor aretoan 17:00etan; *Siete mesas de billar frances* filma berriz, 19:30ean eta 22:30ean.
■ **Tolosa.** Bihar, *El gran silencio* filma emango dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Deialdiak

■ **Tolosaldea.** HITZAren V. urterrenaren harira antolatutako jaia- ren txartelak salgai daude (apirilaren 5an Oargin bertso afaria) Zizurkilgo Aurreran, Tolosako Raku eta Denak eta Leitza Torrea tabenatan, eta HITZAren egoitzan bertan.

■ **Tolosa.** 51ko kintoen festa Andoainen apirilaren 13an: 12:30ean meza Santa Cruz ermitan hildakoen alde eta 14:00etan bazkaria Leitza jantzetxean. Izen-ematea, 943 593205 (jantzetxea); 943 654592 (Jose M^a Tolosa).

■ **Tolosa.** Gerra Zibilean errepre- sioa jasan zuten biktimen eta fa- milien informazioa jasotzeko bule- goa Aranburu Jauregian, astelehe- netan 16:00etatik 20:00etara, astearteetan 09:30etik 13:00eta- ra eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

■ **Ibarra.** WingTsun ikastaroa api- rilaren 2tik ekainaren 23ra, astele- hen eta asteazkenetan 20:30ean. Izen-ematea, kiroldegian 84 euro- tan (ez bazkideek 117)

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Arkumearen jaialdia, gaurtik aurrera

TOLOSA • Txuleta, arrautza,... Eta oraingoan arkumearen txanda heldu da. Izan ere, gaurtik aurrera Eusko labela duen arkumea izango da Tolosa Gourmetek antolatutako jaialdiaren osagai nagusia. Oraingoan ere, Divinus Catering eta Urkaizkorekin batera Tolosako jatetxe nagusiak ardura-

tuko dira sukaldatze eta zerbitzatzeko lanaz. 40 euroren truke Zerkausian atonduko duten jatetxean eskainiko diren menua ezberdinak dastatu ahal izango dituzte bisitariak, hilaren 23ra arte, igandearekin, izango dute horretarako aukera. On egin! ESTREZBA

A Agurrak



Urte askoan!

Jose Luis Tome (Tolosa).
Zorionak familia guztiaren partetik.



Urte askoan!


Itsaso Oreja Mitxelena (Tolosa).
Bihar 8 urte. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



opor hauetan atera argazkiak

Sari nagusia

Bidaia Agentzia sarcem **bidaide**



Aisia **ADUANA Bainuetxean** (Orduñan, Bizkaian) 2 pertsonentzat.

2. saria



Bi pertsonentzako bazkari edo afaria Berrobiko **Iriarte** Jatetxean.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
 - **Postaz:** Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza. Araba etorbidea 5 behea, atzea 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzaaldeko HITZAren egoitzetara ekarri